

PAULA AMILBURU IZARGARAI

«Landu dudana erakutsi nahi dut, horrekin nahiko triste geratu nintzelako aurreko finalean»

Aramaion jaioa, 1994an. 2013an aurkeztu zen lehenbizikoz Arabako Bertsolari Txapelketan. Bigarren finala izango du. Lanetik lagun baten etxera bidean harrapatu dugu, motxila arropaz beteta, finalerako konjunttoa osatzeko, inportantea delako eroso janztea gustura kantatzeko. Entzungo dugu... eta ikusi.

Zer moduz zaude?

Nahiko lanari begira nabil (institutu bateko irakaslea da), baina igartzen dut urduri jartzen hasi naizela, oraindik bu-rua finalean eduki barik. Lehenengo saioan “super” urduri egon nintzen, eta hanka-sar- te dezente egin nituen. Bigarrenean akaso lasaiegi egon nintzen. Nahiago nuke tarteko zerbait finalean. Ea eguneko gorputzaldiak zer dioen...

Duela bi urteko finalean la- saiegi egon nintzen; kontzien- te nintzen ez nengoela batere urduri eta horrek urduritzen ninduen.

Aurten inoiz baino lehenago hasi naiz prestatzen, irailean, gogotsu, astero kantuan. Lehen saiora iritsi nintzen prestatuta, baina zimendu guztiek kale egin zidaten eta bat-batean oso berde ikusi nuen nire burua. Bigarren saiorako lasaiego nengoen, arantza kentzeko asmoz joan nintzen, ez nuen espero fina- lera pasatzea. Ondo amaitu nuen, damurik gabe behintzat.

Oso exigentea zara?

Orokorrean gure buruarekin exigenteak gara bertsolariok. Duela bi urte ez nuen oso on- do pasa finalean, lehen aldiz oholtza horretara igotzea bes- te mundu batera pasatzea da, eta aurpegiz eutsi nion arren, barrutik ez nuen batere ondo eramane. Aurten nire lana da behintzat ondo egitea, lasai egotea eta kontzentratuta kan- tatzea. Landu dudana zerbait erakutsi ahal izatea behintzat, horrekin nahiko triste geratu nintzelako aurreko finalean. Ez dakizu zer espero. Aurreko txapelketa osoa oso gustura neraman, zentratuta, eta fina- lean bat-batean bukaerak ahazten zitzaizkidan. Nire bu- ruari eutsi nahian, ahal nuena egin nuen. Normalean gogora- tzen dugu zer kantatu dugun, baina ordukoa ez dut oso on- do gogoratzen. Nahiko des- kontrol izaten da lasai ez gau- denean.

Esperientziak lagunduko di- zu aurten.

Hori espero dut. Europa jaure- gian izan zen aurrekoan, eta Printzipalera itzuliko da orain. Printzipala berria izango dut oholtzan, baina ezagunagoa egiten zaigu guztioi, oholtza- pean askotan egon naiz.

Zerbait landu duzu bereziki?

Bakarkako ariketa gehienbat. Bi bertso ikusi eta horri aurre egitea kostatu izan zait, baina aurten hartu diot martxa. Pauso bat eman dut: kontrola- tuago dut bi bertsoen eraketa eta estruktura.



Nola ikusi duzu txapelketa oro har?

Lehen saioan kantatzea tokatu zitzaidan eta guztiok sorpresa hartu genuen sarrera guztiak momentuan saldu zirenean. Normalean final laurdenak ez dira hain jendetsuak. Denok poztu ginen, agian presioa ere eragin zigun. Ikusi dudana da gure artean dugun giro polita, beti bezala, eta maila igo du- gula orokorrean guztiok. Saioak oso ondo joan dira. Aramaiokoa, adibidez, oso po- lita izan zen, hor ere sarrera denak salduta. Daukagun mai- la erakutsi dugu, ez dugu ezer demostratu beharrik.

Finaleko seikoteaz zer diozu?

Manex Agirre eta Iñaki Viñas- pre mantendu dira. Manex bertso eskolako kidea dut, eta oso ondo egiten du bertsotan. Viñaspre oso azkar erantzute- koa da, eta umorea ere aporta- tzeke klabe bat izan daiteke. Peru Abarrategiren hirugarren finala da, txapelarekin dator, eta, elkarrekin kantatu dugu- nean ikusi dudanez, egurra ematera joango da seguru. Asier Otamendi bueltatu da,

ondo kantatzen du, kide ona da. Aroa Arrizubieta eta biok bigarrenez kantatuko dugu eta dena ematera goaz gu ere.

Bazabiltza plazetan?

Pandemia ostetik plaza kopu- rua jaitsi da Euskal Herri osoan. Nik ez dut saio askotan kantatzen, ez naute asko deitu, zorionez badago nori deitu gehiago, pozgarri ikusten dut, ez penaz. Hala ere, noizbehin- ka jasotzen ditut gonbidape- nak, eta oso pozik hartzen dut datorrena.

Nola ikusten duzu Arabako bertsolaritzaren mugimen- dua, bereziki gazteen segida?

Orokorrean fuerte ikusten dut. Bertsolari gazteak ez dira nire garaian beste. Gu pila bat gi- nen, nahiz eta bidea jarraitu dugunak ez hainbeste izan. Baina erreleborik ez da falta, atzetik jendea gogotsu dator. Gazteekin kointziditzen dut eta maila polita dago. Ez gare- nez hainbeste, gure artean gi- roa sortzen dugu eta gauzak egiten ditugu elkarrekin. Etor- kizuna badago, eta horrekin pozik nago.